

Baiona, 2008ko martxoaren 1a

Xabier Mendiguren
KONTSEILUko idazkari nagusia

Agur t' erdi

Herri hauteskunderen kariatara BAIONA BERRIA zerrendari galde zehatza helarazi diguzu.

Sortu denetik BAIONA BERRIA-k euskararen berreskurapena bere programaren muinean kokatu du. Alabainan pentsatzen dugu Ipar Euskal Herriko hiri nagusian euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatu behar direla eta egunero euskaraz bizitzeko aukera erreala bihurtu behar dela. Egitasmo horretan, duarik gabe, Herriko Etxeak erantzukizun handia badu.

2001eko hauteskunde kanpainan hizkuntza politika ausart baten beharra defenditu genuen bai eta horren gauzatzeko behar bezalako egitura eta baliabide humano nahiz ekonomikoen beharra ere.

Sei urtez, behin baino gehiagotan auzapezari gallegin diogu Euskal Konfederazioarekin bil dadin, honek Herriko Etxeei proposaturiko hitzarmena aztertzeke. Azkenik, mandatuaren bukaeran, Grenetek Euskararen Erakunde Publikoarekin hitzarmen bat izenpetzea onartu duelarik, alde bozkatu dugu, lehen urratsa zelakoan, bainan asmo ederrak ekintza bihurtu behar zirela azpimarratuz.

Gure ustez Herriko Etxeak hiru arlotan aritu behar da (ikus gure hauteskunde plaketan, 15garren orrian) :

- ✓ **Euskara promozionatu** eta jendearen atxikimendua indartu, aldeko jarrera erakutsiz eta informazio kanpainak antolatuz ;
- ✓ **Hiztun kopurua emendatu**, murgiltze sistema eskaintzen duten ikasbideei sustengatuz edota herriko langileak euskalduntzeko plana bideratuz besteak beste ;
- ✓ Bizitza publikoaren alor guztietan **hizkuntzaren erabilpena bultzatu** eta areagotu, jendeari Herriko Etxearekin harremanak euskaraz burutzeko parada eskainiz.

Ekintza plan zehatza definitu eta euskara zerbitzua sortzeaz gain, herriko Kontseiluak delibero bat hartu beharko du, hizkuntza politika denboran bermatzeko. Horri begira Kontseiluak landutako dokumentua oinarri interesgarria iduritzen zaigu. Baionako egoerari delibero horren aplikapen konkretua landu beharko dugu, bereziki zein erritmotan eta zein alorretan garatuko den zehazteko. Izan ere, Baionan herritarren %7/8 soilik dira euskaldun. Azalpen eta pedagogia lan luzea beharrezkoa izanen da herritarren interesa sustatu eta areagotzeko, herriko langileak motibatzeke eta inplikatzeko, hots oraiko interes eskasa edota mespretxu egoerari buelta emanez, euskararen aldeko giro baikorra sortzeko.

Horretarako euskalgintzako herri mugimenduen sustengua beharrezkoa izanen zaigu eta haiekiko elkarlana ezinbestekoa. Horretarako egiturak, prozedurak eta baliabideak jarriko ditugu.

Besterik gabe, onar itzazu idazkari nagusi jauna gure agurrik beroenak

BAIONA BERRIA zerrendaren izenean
Xabi Larralde